

“2014-2015 ALDIKO TXOSTENAREN LABURPENA HERRITARRENTZAT”

Europako Gizarte Funtzaren 2014-2020 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Programa Operatiboa Europako Batzordeak 2015eko abuztuaren 27an hartutako Erabaki bidez onartu zen, negoziazio-prozesu baten ondoren eta Europa 2020 Estrategiara ez ezik, Europako Egitura eta Inbertsio Funtsei (EEI funtsak) aplikagarriak zaizkien Erregelamenduen baldintzetara ere egokitu ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko errealitate sozioekonomikoaren eta lan-arlokoaren premiak eta erronkak kontuan hartuta.

Programa horretan 107,65 milioi euroko zenbatekoko jardunak biltzen dira. Aurrekontu horren erdia, hots, 54,12 milioi euro, Europar Batasunak emango du, eta bestea erdia euskal erakundeek.

Programazioaren helburua eskuragarri dagoen finantzaketa balio erantsi handiagoa sor dezaketen jardunetan biltzea izan da, Europako 2020 Estrategian ezarritako garapen inteligente, iraunkor eta integratzailea ez ezik, kohesio ekonomikoa, soziala eta lurralde-arlokoa ere lor dadin sustatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeak egiten ari diren ahalegina maximizatzeko.

Onarpen-daten arabera, Programa Operatiboa abian jartzeko ekintza nagusiak 2015. urtean gauzatu dira, bai Programa kudeatzeko eta Programaren jarraipena egiteko alderdiei dagokienez, bai onuradunekiko jardunak diseinatu, planifikatu eta hasteari dagokionez.

Hortaz, 2015. urtean Jarraipen Batzordea eratu zen; partaidetza handia izan zen, bai kideen aldetik, baita EAEko agenteen eta erakundeen aldetik ere. Lehenengo Jarraipen Batzordea 2015/11/25ean egin zen eta Programa Operatiboa sustatzeko Ekitaldia egiteko baliatu zen.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua Euskadiko enplegu-politika aktiboetan eskumena duen erakundea denez, Programa Operatiboaren aurrekontuaren erdia egikaritzea dauka esleituta eta 2015ean, Programa Operatiboa osatzeko hautatutako programak Europako laguntzen aldi berriaren errekerimenduetara egokitu ditu.

Europako Gizarte Funtzaren 2014-2020 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Programa Operatiboa beste agente batzuen partaidetza sustatzeko asmoz diseinatu da. Agente horien artean eskualdeko eta tokiko agenteak daude, baita agente ekonomikoak eta sozialak eta hirugarren sektoreko erakundeak ere, baldin eta jardunak Euskal Autonomia Erkidegoko eskualde eta lurraldeetako premietara hurbiltzeaz gain, gizarteratzeko eta laneratzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboek (desgaitasuna duten pertsonak, etorkinak, bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak) estaldura eraginkorragoa ematea eta intereseko hainbat eremutan (ekintzazailtza sustatzea eta enpresak sortzea, adibidez) eragitea ahalbidetzen badute.

Partaidetza hori Programa Operatiboaren erakunde onuradunak hautatzeko norgehiagoka-prozedurarako deialdia eginez antolatu da: *2015eko urtarrilaren 20ko Agindua, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2015eko urtarrilaren 12ko Agindua –Europako Gizarte Funtzaren baterako finantzaketa lortzeko egiten den eta Europako Gizarte Funtzaren Euskal Autonomia Erkidegoko 2014-2020ko Programa Operatiboan kokatzen den deialdian parte hartzeari buruzkoa– ordeztzen duena* (2015eko urtarrilaren 29ko EHAA, 19. zk.). Erakunde

interesdunek beren jardun-proposamenak aurkeztu dituzte Programa Operatiboa aplikatzeko hautatutako Helburu Tematikoen eta Inbertsio Lehentasunen barruan.

Aurkeztutako proposamenen balioespen- eta ebazpen-prozesua amaitu ondoren, esan dezakegu Programa Operatiboan parte hartzeko hautatutako proposamenak eta erakunde onuradunak honako hauek direla;

Erakunde eskatzailea	Emandako proiektua	ARDATZA
Gasteizko Udala	Emprende Local 20	1. ARDATZA_OT8
Garapen Agentzien Euskal Elkarte (Garapen)	HAZI proiektua	1. ARDATZA_OT8
Bilbao Ekintza, EPEL	Bilbao Sortzen	1. ARDATZA_OT8
Gipuzkoako Foru Aldundia	Autoenplegua Sustatzen	1. ARDATZA_OT8
Donostiako Sustapena, SA	Donostia Gazteekin: gazte langabe gaituen lan-munduratzeko egokitua hiriko azaleratan ari diren sektoreetan eta sektore estrategikoetan.	1. ARDATZA_OT8
Euskadiko Elkarte Laboral Taldea (ASLE)	Lanzituz-Lan Sozietateak Sortuz	1. ARDATZA_OT8
Ehlabe	Auker Ability	2. ARDATZA_OT9
Gizarteratzeko Sendotu Aldi Berean Elkarte (Peñascal, Agiantza, Caritas, Erroak, Zabaltzen, Gaztaroa eta Araba)	Sendotu Aldiberan	2. ARDATZA_OT9
Suspergintza Elkarte	Emak-Tiva	2. ARDATZA_OT9
Emaús Bilbao SCIS	Inclusión social i3	2. ARDATZA_OT9
Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea	Gizartean baztertuta geratzeko arrisku-egoeran dauden kolektiboak landa-ingurunean gizarteratzeko zerbitzua	2. ARDATZA_OT9
Bizkaiko Foru Aldundia	Gizarte Berrikuntzaren sustapena Bizkaian	6. ARDATZA_IS
Lea Artibai Eskualdeko Lanbide Ikastetxea, S Koop.	TEP (Technology Entrepreneurship Program) proiektua	6. ARDATZA_IS

Beraz, 2015. urtean jarri da abian Programa Operatiboa, eta 2016. urtean martxan egongo da etengabe.